

Antropofagia

2. Padua-ko S. Antonioren izeneko bazkuna, "San Antonioren jaierazko bazkuna" bere izen propioa duena: Frantziskotarren inguruan sortua eta horiek gidatua. Gaur E.H.an behintzat ia desagertu egin dira antonianoen bazkunak.

Ik. Jaierazko bazkuna.

Antropofagia

Ik. Kanibalismoa.

Antropogonia

Gizakiaren sorrera eta eratzea da; *kosmogonia osoaren edo munduaren *kreazioaren parte da.

Antropologia teologikoa

Kristau-teologiaren parte da, gizakia bera --beronen izaera banako, sozial eta historikoa--, Jainkoaren erlazioaren argitan ikusten eta aztertzen duena: Jainkoak bere antz eta irudira sortua, eta, *bekatuan eroririk, desitxuratu edo irudigabetua; Kristogan zaharberritua eta berarekin irudikideturik, Jainkoarekin graziaren bidez adiskidetu eta elkartua, egoera historiko, aldakor eta behin-behineko honetan; *heriotzaren ondoren behin-betirako *salbamaena izango du Jainkoagan irudiberriturik, nahiz betirako *galmena, Jainkoagandik aldendurik.

Gizakiaren hiru momentu teologiko horiek: jatorria, historia eta helburua, antropologia teologikoaren hiru parte handitan banatzen dira: protologia, jaritologia, *eskatologia.

Ik. Jainkoaren irudia; Kreazioa; Teologia.

Antropomorfismoa

Jainkoa edo jainkoak giza tankeran irudikatzea da: gizakiaren itxura fisikoa, grinak eta egikera eta guzti. Ezinbestekoa da nolabaiteko antropomorfismoa, erlijioan, gizakiak ez bait dauka jainkozkoa, bere kontzeptu eta *sinboloen arabera ez bada, bururatzetik eta irudikatzerik. Greziako eta Erromako *mitologia, eta orokorki edozein mitologia, antropomorfismoan oinarritzen da, gizakien edo heroien arteko harremanen arabera kontatzen bait dituzte jainkoen egin-tzak eta jokabideak.

Monoteismoak antropomorfismoa kritikatzeko du, Jainkoaren izpiritualtasuna eta traszendentzia nabarmenduz; ez dauka hura gainditzerik, ordea; hala ere, jabeturik dago erlijiozko hizkeraren eta irudikeraren izaera sinbolikoak.

Ik. Sinbolioa; Irudiak; Ikonoklasta.

Antroposofia

1913 Rudolf Steiner austriar filosofo eta artistak (1961-1925) sortu eta eratu zuen Antroposofi elkarte munduzabalekoa. *Sinkretismo gnostikoa du bere irakatsi oinarritzakoa; *okultismo teosofikoak eta kristautasunak leku garrantzizkoa dute antroposofian. Elkartearen helburua da gizon-ema-kumeen adimena garatzea, horien sentikortasuna fintzea eta bakoitzari norberaren burua ezagutzen laguntzea.

Ik. Teosofia; Gnostizismoa.

Antropozentrismoa

Kristau-teologian eta *izpiritubidean zera adierazten du: gizakia bera norberaren bizitzaren eta historiaren erdigune eta helburutzat hartzea. Horrela ikusirik, *teozentrismoaren aurkakotzat ikus daiteke. Izatez, Jainkoa eta gizakia banandu-ezinak dira kristau-gogarte teologikoan eta kristau-bizieran, Jainkoaren gizonegitea sinesten denetik eta Jainkoaganako eta gizakiaganako maitasuna bereiztezintzat jo dituelako *Ebanjelioak. Teozentrismoa eta antropozentrismoa etengabeko tirabiran daude elkarrekiko, eta etena gertatzen da, antropozentrismoak gizakia bere baitan ixten duenean (*ateismoa) eta teozentrismoak gizakiaren *autonomia ukatzen duenean edota *izpiritualismo aingerutarrera erortzen duenean. Kristau-teologiak *kristozentrismoan bateratzen ditu Jainkoa eta gizakia.

Ik. Gizakundea; Kristozentrismoa.

Antzaldaketa

Kristau-hizkeran erabiltzen den hitza; eta bereziki ebanjelioan (Mt. 17,1-10) kontatzen den gertakaria izendatzeko; Jesukristo bere hiru apostoluren aurrean, argiz inguratuturik distiratsu bihurtu zenekoa, alegia, horrela gizatasunaren gain nolabait bere jainkotasuna agerian utziz. Eliza Katolikoak abuztuaren 6an ospatzen du *misterio hori.

Ik. Teofania.

Apaiza

Adiera bat baino gehiago du apaiza hitzak katolikoan artean.

1. Sin.: Abadea. Adiera arruntenean *lai-koaren --eta batzutan *erlijiosoaren-- aurrez-aurrekoa da apaizaren kontzeptua; hau da, ordenako sakramentu hartu duena da apaiza. Horien artean, berriz, bereziki apaiz edo abade dira *apezpikuaren eta *diakonoaren arteko mailakoak.

2. Sin.: Mezakoa; Mezaduna. Erlijioaren artean apaiza deritza bereziki *anaia legoan

eta *erlijiosogaien aldean, apaizgoa hartua duenari.

3. Sin.: Sazerdotea. Erlijioen historia-ri eta kristau-teologiari begiñatuz, zabalagoa da kontzetua. Erlijiozko funtzio eta erakunde nagusienetarikoa da apaizgoa. Jainkoaren eta gizakien *bitartekotza dago apaizaren funtzioaren oinarrian; horren egiteko nagusia eta nabarmena, berriz, *opariak eskaintzea izan ohi da.

* * * *

Erlijio gehienetan aurki daiteke apaizgoa, era ezberdinez bada ere: herri askotan etxeko nagusia familian, burua tribuan eta lehendakaria Herrian izan ohi zen elkarte edo gizarteko apaiza edo apaizburua behintzat; *brahmanismoan benetako *kasta eratzen dute apaizek edo *brahmaneeek; antzinako Egipton, tenpluko jainkoen zerbitzuan zeuden apaizak faraoiaren ordezkariak izan ohi ziren, apaizgo nagusia eta jatorrikoa horren funtzioari lotuta bait zegoen.

Antzinako Grezian, estatuaren funtzionarioak ziren apaizak, eta beren egiteko nagusia *opariak egitea zen; era berean Erromako apaiz-kolegioak estatuak berak mantentzen zituen, beraien zerbitzua (opariak, *orakuluak, etab.) bete zituzten; *zoroastrismoan *suaren gurtzarekin dago berreziki lotuta apaizgoa; antzinako Txinan *aztiapena eta izpiritualak menperatzea dute zeregin nagusien apaizek; *konfuzianismoak, berriz, ez zuen apaizik ezagutu. Aparte *tenpluetako apaizak, *etxeko opari eta gurtzarekin lotuta dago sarritan apaizgoa, eta etxekojaunak edo etxekoandreak benetako apaiz-lanbidea betetzen dute.

Hiru erlijio monoteista handitan (judaismoan, kristautasunean eta islamismoan) estatutu ezberdina eduki du eta dauka apaizgoak: Judaismo tradizioaren arabera, Moise erlijio-eratzailleak berak sortu omen zuen apaizgoa, Aaron sagaratzean, baina erbestaldian ondoan organizatu zuten bereziki apaizgoa, *tenplu berreraikiaren inguruan; horien egitekorik nagusienak *otoitza zuzentzea eta opariak eskaintzea ziren; apaizen eta *profeten arteko tirabira nabaria da Itun Zaharrean.

Islamismoak ez du apaizgorik ezagutzen: *imamak edo *muezzinak ez dira benetako apaizak. Kristauen artean, berriz, Eliza Katolikoak, Ortodoxoak eta Anglikanoak apaizgoa duten bitartean, *protestantismoak baztertu egin zuen, Jesukristo aitortzen bait du Jainkoaren eta fededunen arteko bitartekari bakartzat, eta Haren heriotza, kristau-opari bakar eta berrituezintzat.

Laburbilduz, bada, apaizaren egitekoak hainbat dira, erlijio ezberdinen arabera: *sendakuntza, *aztiapena, *bedeinkapenak ematea eta *konjurioak egitea, herriaren otoitza zuzentzea, baita fededunen gidaritza izpirituala ere; baina denen gailurrean *opariak eskaintzea dago.

Apaizgoa jatorriz ondorengoenganatu ohi da batzutan; beste batzutan halako funtzio soziali (erregeari, tribu-buruari, etxekojaun edo etxekoandeari) lotuta dago; baina gehienetan errito jakin baten bidez ematen zaio apaizari ahalmen sakratua. Errito ezagunenak dira: *esku-ezarpena, *garbikuntza, *oliadura, jakinduria sakratuko liburua eskaintzea.

Ia beti gizonezkoa izan ohi da apaiza; badira, ordea, apaizeme edo apaiz andreak ere, bereziki jainkosaren baten zerbitzari. Bestalde, euskal erlijio tradizionalen ere, etxekoandeari egotzi izan zaizkion erlijiozko egiteak apaizarenen kidekotzat jo izan dituzte.

Jesukristo ez zen apaiz judua izan; eta bere bizitzan tirabira berezia eduki zuen orduko apaizteriarekin: beraren irakatsia orduko apaizgoaren kritika zorrotza da askotan.

Baina hasierako kristauak apaiz-ekintza eta *oparigintza-gisa ulertu zuten Jesukristoren gurutzeko heriotza: eta *apaiz nagusiaren titulua eman zioten, Itun Zaharreko apaiz nagusiaren burutzapen eta betekuntza gisa adituz, hau da, Jainkoaren eta gizonezkoen arteko bitartekari gisa; berak burutu omen zituen Itun Zaharreko opari ugariak bere gurutzeko opari bakarrean, non oparigaia ere bera izan bait zen.

Horrekin batera landu zuen teologiak kristau guztien apaizgoaren irakatsia: baitaiatu guztiak Kristoren apaizgoan partaide dira eta benetako apaiz Jainkoari opariak eskaintzeko, opari izpiritualak bereziki. Hori izendatu izan du kristau-teologiak fededunen apaizgo arrunta edo orokorra.

Kristau-ministroen apaiz-izaera --gero teologiak apaizgo ministeriala deitu duena-- ez da argi agertzen lehen bi mendeetan behintzat. Eta Elizan apezpiku-eraentza finkatzean, aurrenik horiei egozten diete apaizgoa, eta horien partaide gisa *presbiteroeri.

Kristau-apaizgo ministerialaren funtzioak *euskaristiaren ospatzera eta bekatarriak Jainkoarekin adiskidetzera bildu ziren bereziki. Geroago lotzen da gehiago apaizgo ministeriala Jainkoaren hitzaren predikatzearrekin eta kristau-elkartea eraentzearekin.

Apaiz emakumea

Kin. Horrela eliz hierarkiarekin berdintzen da nolabait kristau-apaizgo ministeriala.

*Ordenazioaren bidez hartzen du apaizak bere ahalmena. Eta horren funtzioak dira orokorki: *sakramentuak egin eta ministratzea; *kristau-dotrina Elizaren itzalez irakastea; kristau-elkartea gidatzea eta eraentzea. Honelako eskemak dirau, gutxi gora behera, Eliza Katoliko, Ortodoxo eta Anglikanoan. Protestantismoak, berriz, ukatu egin zuen apaizgo ministeriala, *mezaren edo *eukaristiaren benetako opari-izaera eta Jainkoaren aurreko giza-bitartekotza ukatzean.

Teologia katolikoaren arabera, apaizgo ministeriala funtzio eta ahalmen bakarra izanik, maila ezberdinetan banatzen du teologiak horko partaidetza. *Apezpikuak du, kontsakrazio edo *apezpikugintzaren bitartez, apaizgoaren beteak; *presbiteroa --edo arruntki apaiza esaten dena--, berriz, apezpikuaren apaizgoko partaide da ordenazioaren edo apaizgintzaren bidez.

Dena dela, teologia modernoak, eta bereziki Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoko Eliz irakaspenak, berrin ere kristau guztien apaizgo arrunta edo orokorra berrestea gain, apaizgo ministerialaren funtzionaltasuna nabarmendu du: hau da, bataiatu bakoitzaren eta kristau-elkartearen apaizgo orokorraren zerbitzuan dagoela.

Ik. Hierarkia; Apaiz emakumea; Ministeritza.

Paulo Agirrebaltzategi

Apaiz emakumea

Sin.: Apaizemea

Jainkoaren gurtza-zerbitzuaren kargua duen emakumea, *opariak eskaintzeko, *aztiapenak egiteko, etab. Bereziki paganoen artekoak deitzen dituzte horrela. Kristautasunaren barruan, ortodoxoek eta katolikoek ez dute apaiz presbiterotarako emakumerik onartzen, baina teologoan artean, eztabaida dago horretaz. Anglikanoek eta presbiterianoek, berriz, emakumeak ere sagaratzen dituzte orain apaizgo ministerialerako.

Ik. Eliza presbiterianoak; Eliza anglikanoak; Apaiza.

Apaiz langileak

Apostolutzen mugimendua, Frantzian sortua, eta gero beste Herritara zabaldua, non apaizek lantegian egiten bait zuten lana, dekrizaturiko langileen artean biziz eta ihardunez, kristau-fedearen testigantza emateko.

Vatikanoko agintariekin zenbait istilukin zuten apaizek, azkenean *apostolutzen

-modu hori, neurri batzuek jarritik, haiek onzat eman zuten arte.

Elizaren hizkera ofizialean nahiago izan da "laneko apaizak" deitu eta ez "apaiz langileak".

Ik. Dekristautzea; Ebanjelizazioa; Aitorrena.

Apaiz nagusia

Sin.: Apaizburua; Apaizen burua

Apaizen ordenako burua. Honelakoari erlijio askotan egotzi ohi diote titulu hori. Eliza katolikoan apezpikuari ere eman izan diote titulu hori.

Testamentu Zaharreko apaiz guztien burua deitzen zuten bereziki horrela, bereziki apaizburuetan buru zena; haren egitekoak, pribilegioak, bizikera eta janzkera ondo zehazturik zeuden. Jatorriz zetorren juduen artean apaiz nagusiaren kargua, eta Aaron, lehen apaiz nagusiarengandik zetozen ondoko denak. *Jerusalengo jauretxearen ardura behinena zeukan apaiz nagusiak; berak eskaintzen zuten *espiazio-eguneko liturgia, eta bera bakarrik sar zitekeen *leku santu-santura. Erbestaldi ondoko garaietan Israelgo buru politiko ere apaiz nagusia bihurtu zen, eta ez zen jatorrizko kargua izan aurrerantzean. Erromatarren garaian, horien esku zegoen hura izendatzea.

Testamentu Berriaren, bereziki Hebraitarrei eginko epistolaren arabera, apaiz nagusiaren egitekoa bukatu egin zen, Kristoren oparia behin-betikoa omen delako; Kristori berari eman zaio titulu hori.

Ik. Apezpikua; Judaismoa.

Apaiz-erlijioa

Erlijio-sistema bat da, non apaizek funtsezko lekua eta eginkizuna betetzen bait dute, Jainkoaren eta gizon-emakumeen bitartekari derrigorrezko gisa. *Katolizismoa horrelakoa da.

Ik. Kleroa; Klerikalismoa.

Apaiz-kontseilua

Apezpikuak bere ministeritza betetzeko kontseilari dituen *diozesiako apaizen taldea da. Aldizkako bileren bidez hartu ohi ditu horren aholkuak *apezpikuak.

Ik. Presbitergoa.

Apaizaita

Ik. Parrokoa.

Apaizburua

Ik. Apaiz nagusia.